

Zeanuriko Ermiten Ibilaldia urri lehenengoaren 6an izango da

14. orrialdea

Ziemkiewiczek musikea ipini deuto Amodiozko ipuinak ikuskizunari

Biola eta bibolin jolea dan Mau Ziemkiewicz zeanuriztarrak, bere lehenusina Maite Arreseren ikuskizunari musikea ipini deuto eta zuzenean jotzen dau ipuin kontaketa. Nazinoarteko mailan dabilen musikaria da Ziemkiewicz eta orain dala gitxi arte Londonen bizi izan da. 17. orrialdea



Areatzako I. Mendi Astea eta III. Mendi Martxea egingo dira

15. orrialdea

TOKIKOM

begitu
arratia ubide zeberio

213

2014ko urri lehenengoaren 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

Begoña Pedrosa HUHEZIKo dekanoko barria

Mondragon Unibertsitateko Humanidade eta Hezkuntza Zientzietako Fakultadeko dekanoa da Begoña Pedrosa Areatzako.

Zezeilatik hona Nekane Arratibelegaz kargua konpartidu badau be, ikasturte honetatik aurrera berak ordezkatu dau HUHEZI Fakultatea alderdi instituzional zein akademikoan. Baina ez da bakarrik sentiduten erronka horri aurre egiteko. Izan be, Mondragon Unibertsitatean taldeka egiten dabela behar eta parte-hartzea eta talde lana unibersidade honen proiektuaren zutabe dirala dino. Fakultatea be kudeatuko dau eta, dekanotzari jagokozan behar honeezaz gaine-

ra, ikerketan jarraituko dau.

Dekanoaren ustez, humanidadeak, modu orokorrean hartuta, funtsezkoak dira unibersidadean eta HUHEZIKoren egitekoa da "gizartearen humanizazioan eragiteko jakintza garatzea eta aldi berean, hezkuntzan, komunikazioan eta kooperatibagintzan profesionalak hezea kooperazio baliotetan". Gizartearen zutabe diran profesionalak formetan dabez fakultate honetan, hezitzaileak eta komunikatzaileak, hain zuzen be. 8. eta 9. orrialdeak



Begoña Pedrosa.

IGORRE

Motor konzentrazioa

Arratiako Motor Taldeak deituta Igorren batuko dira urri lehenengoaren 6an motorzaleak euren motorrakaz, eta Arratian zehar ibilalditxo egingo dabe. Gero, egun osoko jaia: parrilladea eguerdian, jokoak aparkalekuan, zezen mekaniko eta guzti, eta kontzertuak iluntzean Igorreko Kiñu Gaztetxean. Zumo Negro eta Koiu taldeak joko dabe bertan. 7. orrialdea



ARTEA

Jaiak hilaren 5etik aurrera

Buruhandiak egongo dira presente Arteko jaiak hasikerea emoten deusian txupina botateko orduan. Bariku arrastian, hilak 5, hasita astelehenera arte izango dira jaiok. Arteztarrak eta kanpotik etorritakoak, lagun artean taloa eta txorizoa dastatu, pelota partiduak ikusi eta batez be jantzan egiteko aukerea izango dabe plazan eta frontoian. Babel Covers, Izerdi Gorria eta Jokaldi taldeak ipiniko dabe musikea horretarako. 5. orrialdea

E P A
Galdakao
www.epagaldakao.com
Matrikuletako epea,
iraila osoa.
Tlfn. 94 456 60 98
Helduen heziketa

E.P.A.
IGORRE: Elejalde 22. Eleizako lokaletan

LEMOA

Arzallus eta Lujanbioren saioa

Ametz Arzallus eta Maialen Lujanbio, Euskal Herriko bertsolari txapelduna eta txapeldunordea egongo dira Lemoan Elizondoko bertso bazkarian. Hilaren 13an izango da bertsozaleak galdu ezinezko hitzordu hau. Gai jartzaile lanetan Igor Menika ibiliko da.

Bazkalurretik eta bazkalondan, Arratiako Musika Eskoleak eta Zaparrada Batukada Taldeak, hurrengo hurrengo, alaituko dabe poteoa musikea joz. 16. orrialdea

SOKA
LAN BERTIKALAK
T.: 946 036 069
soka@sokavertikal.com
sokavertikal.com

ARRATIA ZURI-BALTZEAN

BAUTISTA ETA
ANDRES BERDUZA
ZEBERIOKO
BIZARGINAK (I)

XVIII. gizaldian, jente gitxi bizi eitekean Zeberioko bailaran nekazari ez zan beste ogibide batetik. Medikua eta abadea egoten ziran osasun fisiko eta espirituala bermatzeko eta asko gehiagorik ez. Soldata bat jasoten ebenen artean herriko barberu edo zirujaua egoten zan. Hurrengo lerrootako historia orain dala 250 urte soldatapeko behararen adibide bat da eta "minijobs" deritzenak ez dirala Angela Merkelen smakizuna erakusten dau. Zeberioko barberuak bost "minijob" eukazan: bizargin edo zirujau izateaz gainera, ospitale-

zaina, lur-emoile, kartzelazaina eta aguazila zan.

Ospitalezainak, Zeberioko ospitalea kudeatzen eban. Behartsuak harrerea egiten eutsen ospitalean bertan, egur nahikoa egoteaz eta etxeko arauak danak bete eiezan arduratzen zan. XVIII. gizaldiko 40 eta 50 urteetako hamarkadetan, herri kontuetan Bautista de Berduza aitatzen da ospitalezain moduan eta 1773tik aurrera, bere semea Andres izango da behar hori egingo dauana.

Bautistak egiten eban beste behar bat, barberu beharra zan. Domeketan, mezatara joan aurretik baseritarrak bizarra egin ahal izateko, parrokiako eleiz atari ondoan, Bizarretxe izeneko lokala egoan. Lehenengoz, 1760 urtean aitatzen da, udalarena zan eta alokairuan emonda egoan, domeketan bar-



San Antolin eta San Roke. Zeberioko ospitalea ez zan seguru asko barruan egon, alboko etxean baino, lehen Solatxi Taberna izanekoa. Ermita dokumentuetan ospitaleko ermita deitzean zan.

beruai ixteko baldintzapean.

"Y con la condición de que dicho... rematante... hubiese de ser obligado a tener la casa libre todos los domingos y días de fiesta sin embarazo alguno en todo el año para que en ella pudiesen y puedan afeitarse cualesquiera vecinos de dicho valle sin que se le ponga embarazo alguno a los cirujanos de dicho valle, ni a sus criados".

Herritar bakotzak pagetan eutsan Berduza jaunari bizarra egitearen prezioa. Gainera, administratzen oinarritako soldatea jasoten eban, 100 erreal urteko. Hainbat urtetan, administratzen zirujau bi batera kontratatu ebazan. Soldata 500 errealek heldu zan 1795 urtean, lehenengoz herriko kontuetan maisu zirujaua aitatzen danean.

Jürgen Lange

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri lehenengoaren 7tik 7ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1

Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Urri lehenengoaren 8tik 14ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g

Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Iruarrizaga. Amorebieta-Etxano.

Urri lehenengoaren 15etik 21era

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33

Tel.: 94 673 70 54

22:00etatik 09:00etara

Aranburu-Guarrotxena. Amorebieta-Etxano.

Zeberiokoak ez dau guardiak egiten.

Urte osoan

22:00etatik 09:00etara

Lucia Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era

orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubideetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era

orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta

20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15

eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15,

14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15

eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriatik): 10:40, 13:40,

16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandio korik ez dago.



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

Webgunea: www.begitu.org

Zuzendaria: Inigo Iruarrizaga

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Irati Urien eta Jon Urutxurtu.

Maketazinoa: Inigo Iruarrizaga.

Publizidadea: Inigo Iruarrizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketee: Marta Rodriguez, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Azibar Sagarna eta Iratze Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendieta eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.800 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Hauxe dozu helbidea:

Zertu Kultur Elkarte

BEGITU aldizkaria

Herriko Plaza 24

48.142 Artea

Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutunak: begitu@topagunea.com


BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Sai



Gure mendietan, Gorbealdean esaterako, sarri ikusi leiteken hegatzia da saia, batez be argazkiko lumaje zuri-baltza daukan sai zuria. Animalia hildako edo tragautakoen okelea jaten dau (séye, agoskatuta). Batuaz, putre berbea erabilten da gehienbat. Beste esangura hau be badauka: gehiago gura edo beti asetu ezinean dabilen lagun edo taldeari esaten jako saia.

ERETXIA

Irakurle alperren gogoetak

Irakurri? Inozko gehien egingo dogu seguruenik, izan be, Historian zehar ez da inoz hainbesteko informazio jariorik egon. Tabletak, ipad-pod, smartphoneak, e-readerrak, eskeintza teknologikoak irakurgarritasuna ahalbidetu dau, eta papelari lekua hartu deutso tinta elektronikoa eta bit-ak. Beste kontu bat da zer irakurten dan, zenbat liburu saltzean diran, zelango kalidadea daukan idatzi eta irakurten dogunak eta horren salerosketearen osasuna. Eta hor, aitortu daigun, belea baltz eta oraindino baltzagorantza. Udak beti dakar topikoa, askoz gehiago irakurten dala eta hondartza zein mendiko kerizpeetan liburuak zabalik dagozala eguzkiloreak bailiran, dozenaka, ehundaka. Mmmmm... umeak, gaztetxoak eskolarako lan moduan eskatu deutseezanak irakurten dabez. Helduak, porzentaje eskandalagarri baten, atzen fitxaketak, Marbella, Mallorca eta Ibizako jendilajearen gorabeherak eta Mundialari buruzko informazioa irunsten dogu batez be. Mmmmm... hausnarketa handi barik esan geinke aisi ereduak aldatu egin dirala, irakurzaletasuna aldatu egin da eta estimulu arin eta momentukoak bilatzen doguz. Agur Homero, Chejov, Kavafis eta Chandler. Guasap, Meetic eta blogak, Facebook txapeldun!

Irakurri egiten da beraz, baina liburuen salmentak urte osoko mailarik bajuena daukie. Eta beste datu bitxi bat; ez da krisiagaitik ala diruagaitik bakarrik, bibliotekak urteko erabilera murrizten daukielako. Euskeraz barriz, garan komunidaderako izenburu lartxo kaleratzen diran da beti ustea, bistan dagoana da inor gitxi bizi dala idazteaz gurean.

Honeri guztiari atzen aldian nagusitu dan joera bat gehitu behar jako: zineman bere sasoiaren gertatu zana, titulu bat ala bi danok



IBAN GORTAZAR

ELKAR-eko langilea

derrigor ikusi behar doguzana alkarrizketetan presente egoteko. Honek ekarri dau Stieg Larssonen gorakadea, Harry Queberten gorabeherak, Dolores Redondo idazle gipuzkoarraren arrakastea... Egun bateko loreak, saldu baina denporan gitxi irauten dabenak. Eta euskerazkoetan ez da kasualidadea salduena Atxaga izaten jarraitzea, Laboaren memoriak eta Jon Arretxeren elebarri baltzagaz batera. Hau da: ez da arriskatzeko, ez dogu arriskatzeko; olatu handiak nora, gu be hara. Apaletan geratzen dira dozenaka liburu interesgarri, oparoak, baina ai! Olatuak galdetu ezker ia zer begitandu jakun atzen eskandinaviarrik ekoiztutako nobela baltza eta guk zertaz dabilen jakin ez? Ez, gurago dogu salduenen zerrendea konsultatu eta horren araber eregi gure bibliotekakoa...

Gurago dogu saltzaileari "ondo irakurten" dan liburu bat emon dagigula, kontzeptu honen atzean zer dagoan ikertu barik: Zer da ondo irakurtea? Arin irakurtea? Trama errez eta arina euki dagiela eta neuronak tranquil itxia? Kontzeptu honen atzean dagoana da Irigoien, Sarrionandia, Aranbarri ala Izagirre astunak dirala, ahalgina eskatuten deuskuela eta ondorioz ez dogula gura euren asmakizunak besarkatzea?

Pirata, espia, filosofo, sorgin ala elefante izan baino, gurago izaten dot jakitea Athleticean atzen aldaketetan ondo ala txarto jokatu dauan Txingurrik, Bizkaiko erdalegunkari nagusienean jentearen iruzkinak erreparatuz. Eta zer? Hori be irakurtea ei da ta...

LUMATUTEN

ARANTZA
ETXEARRIA

Fobiak

Aurreko baten irakurri neban termino barria asmatu dabela eta moda-modan dagoala: *nomofobia*, hau da, *no-mobile-phone-phobia*; beste berba batzuk esanda, mobil barik egotearen bildur izatea.

Inoz ez neban pentsauko puntu horretara helduko ginanik. Lehen trankil-trankil bizi ginan mobil barik, eta gure aurrekoak zer esanik ez! Eta gaur egun mobilaren guztiz esklabo bihurtu gara; hobeto esanda, fobia deusagu mobil barik egoteari.

Fobia edo bildur horren ondorioak be ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula, ez horixe! Ansiedad, estresa eta umore-aldaketak eragiten ei dauz.

Zur eta lur nago sentimentu horretarako terminoa asmatu dogulako, fobiaren bidetik hain zuzen be. Jakin badakit askotariko fobiak dagozana, baina, neure eretxian, zenbat persona, hainbat fobia. Azken finean,

bakotxa bere fobiak bizi dau.

Berbarako, nik neuk fobia deusat nire alaba nagusiaren hamaiketako etxean ahazteari (*nohafobia*), nire alaba txikiaren gustuko galleta barik geratzeari (*nogafobia*), goizen baten etxetik urten aurretik dutxetako astirik ez eukiteari (*nodufobia*). Halan bada, ni neu be fobiaz beteta bizi nazela konturatu naz. Eta fobia sentidu dot horren aurrean (*fofobia*?)!

Behin hori jakinda, zera gomendatuko neuskizu: fobiarik ez badaukazu (*nofobia*), joan zaitetz medikuarengana, alboan daukaguzan ejenpluak ikusita ez zagoz-eta burutik guztiz sano! Eta beste gauza bat: kanpora bazoaz mobila etxean ahaztuta ez itxi, badaezpada be. Batek daki bildur horrek mobiduta zer egiteko kapaz izango zaran.

ZERTZEAN



ARITZ ARRIZABALAGA

Karakterek

Noizean behin idazten du hamabostekari batean. 1.200 karaktereko ipuin laburrak idazten ditu. Sarritan oroitzen du proposamena egin zioten eguna. "Idatziko al dozak ipuinak hamabostekarirako? Ez dok asko izango. 1.200 karaktere inguru eta oso noizean behin baino ez". Baietz erantzun zion proposamenari. Bakardadean sortutakoak argitaratzeko modu polita iruditu zitzaion eta ez zuela burua gehiegi nekarazi beharko.

Ez zen egia. Ez da. Ipuinek ideia indartsu bat izan behar dute, irakurlearen arreta hasieratik bereganatu eta, ahal bada, apurka-apurka arreta hori

areagotu, bukaeran, norabide aldaketa bat egin eta ezusteko amaiera emateko. Zaila da hori guztia. Zailagoa karakterek mugatuz gero. Badaki eta horregatik arretatzen da horrenbeste hamabostekaritik deitu eta ipuina behar dutela esaten diotenean. Deitu eta ipuina bidali bitarteko egunak lorik hartu ezinik eta bere burua madarikatzen ematen ditu. Deitu baino lehen, lana aurreratu eta, urtean zehar, badaezpada ipuin batzuk idazteko astia izaten duen arren, ez du halakorik inoiz egiten.

Oraingoan baina, lasaieago dago. Egin du lehenengo pausoa: Badauka ideia. Ideia

bururatzen zaionetan, ezpainek tira egiten diote alboetarantz irribarra sortzeko bultzadaxoak emanez. Badaki bide erdia egina duela eta, buruan duena ondo garatuta, gutxi barru izango duela ipuina. Eta hori gertatzen denean, lasai egiten du irribarre. Eta barre. Eta ukabila zarratzen du pozez. Hamabostekariko enkargua amaituta, lasai egiten du lo hurrengo deira arte.

Eskema txiki batean zatitu duen ideia irakurri du. Ideia ona da. Gero sekula baino ozenago egin du barre eta ukabilak min egin arte itxi ditu.

Ideia ona da, oso ona. Ipuin bat ez, bi ditu. Hau da lehenengo.

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Lekeition ateratako "Kaioa" izeneko argazki hau bialdu deusku Sara Gutierrez Areatzakoak gure lehiaketan parte hartzeako. Lekeition aterata egon arren, munduko edozein kostatan aterata egon leiteke. Kalatxoriak, itsasoak eta eskegita dagozan erropa horreek uda sinbolizetan dabe, denporegaz eta ez espazioagaz lotuta dagoan kontzeptua.

Uda, itsasoa, kaioak... denporeak berak beste erritmo bat, beste zapore, usain eta doinua dauka udan.

Hilaren 25era arte bialdu daitezke oporretako argazkiak gure lehiaketan parte hartzeako eta sari zoragarri bat irabazteko. Udagoienean, opor tiki estiloko astegoiena pasetako aukerea emoten dauan saria eroango dau irabazleak: landetxe baten persona birentzako gaua eta gosaria.

Bialdu argazkiak begitu@topagunea.com helbidera eta parte hartu. Zorte on!



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorosticl.com

agoa Ortodontzia
hagin klinika
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odonatologia
Bidebarri 1, behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalegata Zerbaita 100
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA **Sasobide**
Balneario Areatza
Tania Fernandez Santiago
COL. 1718
www.gruposasobide.com Tel.: 94 657 54 50

ARRATIA

Jentilzubi eta Axular herriko tabernak konfisketako epaia emon dau Auzitegi Nazionalak



Axular herriko taberna.

Erredakzioa

Garagarrilaren amaieran atera zan herriko tabernen auziko epaia. Herriko tabernak konfisketako agindua emoten da bertan, "ETA-ren egiturea finantziazteagaitik". Herriko Taberna horreen artean, Dimako Jentilzubi eta Igorreko Axular dagoz.

Espainiako Auzitegi Nazionalak bat egin eban fiskaltzaren tesiagaz eta herriko tabernak konfisketako agindua emon eta urtebete eta hiru hilabete eta hiru urte arteko kartzela zigorrak ezarri deutseez hogeitun lagueri. Honen arabera, herriko tabernak Espainiako Estaduaaren eskuetara pasauko litzatekez. Dana dala, epaia irmoa izan arte ez dira zigor honeek gauzatuko. Defensak Auzitegi Gorenean errekursoa

ipini dau.

"Errekurridu egingo dogu. Ez gagoz bat be konforme epaiagaz. Euskal Herri osoaren kontrako epaia da" azaldu deutso BEGITURI Albaro Legarreta Igorreko Axular Herriko Tabernakoak.

Mobilizazioak

Sententziaren barri jakin ostean, Sortuk agerraldia egin eban eta herri guztietan konzentrazioak egin ziran garagarrilaren 30ean. Bilbon be konzentrazioa egin zan abuztuaren 2an, auzipetuak eta herriko tabernak libre ixtearen alde.

Hiru egun beranduago, Zarrutzen herriko tabernetako ordezkariak agerraldia eta bideoa egin eben. Dimako Jentilzubi eta Igorreko Axular alkarteetako ordezkariak bertan ziran.

IGORRE

Arratiako Merkatarien Elkartek jai eguna antolatu dau hilaren 13an

Erredakzioa

Arratiako Merkatarien Elkartek, AME, bere eguna ospatuko dau hilaren 13an eta hainbat ekitaldi antolatu ditu Igorren herritarraz ospatuteko. Ekitaldi honeen bitartez, merkatariek bezeroakazko hartu-emonak eta alkarren ezagutzea sendotu gura dabez, horixe da-eta, hurreko komertzioaren bentajetako bat. Jaia Igorreko Kultur Etxeko plazan izango da eguraldiak lagunduten badau, bestela, eskoletako aterpean izango da.

Batez be, umeak pasauko dabe ederto: eurentzako puzgarriak, tailerrak eta txu-txu tren antolatu dabe merkatariek eta. 11:00etatik aurrera egongo dira puzgarriak; tailerrak, barriz, arrastian izango dira, 17:00etatik aurrera eta txu-txu tren goiz eta arrastiz ibiliko da. Edozein edadetako martxo-soenak Xaiborren diskofesteagaz gozatuko dabe eta amaituteko pintxoak eta barbakoa egongo dira doban, indarrak berreskuratuteko.



ARTEA

Herriko jaiak urri lehenengoko andramarietan



Babel Covers taldea.

Erredakzioa

Babel Covers, Izerdi Gorria, Gaupasa eta Jokaldi taldeak joko dabe Arteko jaietan estilo desbardinatiko erromerian bitartez danan jantza egiteko gogoak asetuteko. Holan, Juanma Labandibarren Babel Covers bandak, jatorri desbardinatiko rocka eskeiniko dau. Labandibar teklista arteztarra Alekarre taldeko partaide izan zan eta gaur egun, Babel Covers bandan jotzen dau. Bariku gauean izango da eta jaietatik etxera bueltetako autobusa egongo da gau horretan. Goizaldeko 02:30ean eta 04:30ean hartu daiteke autobusa, autobus geralekuan Arratiako beste herrietara itzultzeko.

Zapatuko erromerian Izerdi Gorria taldeak joko dau. Taldean, Amaiur erromeria talde ezaguneko partaide izandakoak jotzen dabe. Eta astelehen arrastia Gaupasa eta Jokaldi taldeak animauko dabe.

Urri lehenengoak 5, barikua

17:30ean, txupinazoa eta buruhandiak.

18:00etan, txarangea.

20:30ean, taloa, txorizoa eta urdaia plazan.

22:00etan, play-back-a.

22:30ean, jantzaldia Babel Covers taldeagaz.

Urri lehenengoak 6, zapatua

11:00etan, haur parkea frontoian.

14:00etan, Tortilla Txapelketa eta bazkaria plazan.

17:00etan, Thor magoa.

18:30ean, Arratiako esku pelota eskolen erakustaldia.

22:30ean, erromeria Izerdi Gorria taldeagaz.

Mozorro gaua: Erroma.

Urri lehenengoak 7, domekea

12:30ean, motozerreagaz erakustaldia Ikusgarri taldeagaz.

17:30ean, Mus eta Briska Txapelketa.

19:30ean, kale antzerkia.

Urri lehenengoak 8, astelehena

11:00etan, mezea.

11:00etan, haur parkea frontoian.

12:30ean, Gaupasa taldea.

18:00etan, jantzaldia Jokaldi taldeagaz.

20:00etan, txokolatea plazan.

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

FISIK
FISIOTERAPIA ETA
ERREHABILITAZIO ZENTROA
Tel. 94 685 11 16
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE

HERRIKO BENTA
HOSTAL
HERRIKO PLAZA,
48142 ARTEA (Bizkaia)
Tel. 94 631 72 56

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza
Askatasun 28, 1B - 48143 Areatza
Tinoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

24h
EGUNEKO OGIA
vending pan
IGORRE
Lehendakari Agirre

ARTEA
Arteko Udalak
Gora Andra Mariak!
JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

ARRATIA

Hildako abereak jasoteko Base Gorrira deitu behar dala gogorarazoten dau Mankomunidadeak**Erredakzioa**

Horretarako ez diran edukiontzietan gero eta sarriago agertzen dirala hildako abereak edo abere zatiak ohartarazoten dau Arratiako Udalen Mankomunidadeak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Base Gorria izeneko bilketa zerbitzua eskeintzen deusela abeltzainai

gogorarazoten dau.

Ustiapenetan hildako abereak (behiak, ardiak, ahuntzak, behorrak...) jasotzen ditu Base Gorrira. Hori gertatzen danean 94 446 52 97 telefonora deituta, kontaktuan ipinten dira bila pasetako. Txakurrak, katuak eta etxeko beste animaliak hiltzen diranean albatari kliniketara eroan behar dira.



LEMOA

Udalak mugikorretarako aplikazioa egin dau**Erredakzioa**

Udala eta herritarren arteko hartu-emonen zuzenagoa izateko, Lemoako Udalak mugikorretarako aplikazio bat diseinatu dau. Honeguz, erabiltzaileak iradokizunak, eskaerak eta kejak, berehala eta era zuzenean helduarazotzen ahal deusaz Udalari.

Android eta IOS sistemetakodendetan dago eskuragarri doban eta euskeraz edo gaztelerez instalatu ahal da, mugikorrek konfiguratu daukan hizkuntzearen arabera.



DIMA

Dima-Ugarana herri ikastetxeak Aktibatu + lehenengo saria jaso dau**Erredakzioa**

Aktibatu + Eskola Programea 2013-2014 edizinoan, Arratia eta Nerbioi-Ibaizabalen landu da. Programa honek ingurumen osasuna hobetuteko eguneroko ekintza txikerrak bultzatzen ditu. Zazpi ikastetxek hartu dabe parte eta guztiak lortu dabe energia kontsumoa % 11 eta % 34 arteko porzentajeetan murriztea. Aktibatu + erakundeak zentro batzuen lana nabarmendu gura izan dau sarien bidez. Dima-Ugarana ikastetxeak lortu dau lehenengo saria.

Sarien artean, Mutrikun olatuak aprobetxetako dagozan instalazioetara eta Metro Bilbaoren makina-gelara bisita gidatuak egon dira, besteak beste.

Aktibatu + eskoletan

Aktibatu + Programea ikastetxeetan eta etxebizitzetan ezartzen da. Ikastetxeetako programeak eskolako jarduerak, enegia kontsumoan, hondakinen kudeaketan edo garraioen erabileran sortzean daben eragina murriztea dauka helburu. Nazino Batuak sustatutako Ekintza Plan Globalaren barruan dago ekimen hau eta Bizkaiko Foru Aldundiak ipini dau abian beste erakunde batzuen laguntzeagaz.



ARRATIA

Baba Lehiaketea Lemoatxan eta antzerkia Elizondon**Lemoako San Antolin.****Erredakzioa**

Lemoatxan jaigiroa izango da ermita inguruan, hilaren 2an, San Antolin egunean, lemoatxarrak bertako jaiak ospatuten ditue eta. Baba Lehiaketea egongo da eta erromeriak, Jokaldi taldeagaz, ez dau hutsik egingo. Urtero lez, hara igoteko Udalak autobus zerbitzua ipiniko dau.

Dimako Oban be ospatuten dira jai honek Sandoni izenpean. Abuztuaren 29an bota eben txupina eta harrezkerotik disko festa, antzerkia, krono-eskaladea, Bola Txapelketea, kros lasterketea eta beste ekintza ugari egin dabez ondo pasetako. Hilaren 2an emongo deutsee amaieria jaiak. Mezea, sormen arrastia eta txokolatea bertaratuten diranantz dira egun horretarako proposamenak.

Hilaren 6an Lemoako Mendietan jaiak ospatuko dabe auto slalom-a eta sardina janagaz. Egun bi beranduago Andra Mari jaiak, Lemoako Elizondo auzunean ospatuten dira.

San Antolin jaiak Lemoatx (Lemoa)**Urri lehenengoak 2, martitzena****10:30**ean, mezea San Antolinen. Ondoren, barauskarria.**14:00**etan, Baba Lehiaketako lapikoen aurkezpena.**17:00**etan, erromeria Jokaldi taldeagaz.**Oba (Dima)****Urri lehenengoak 2, martitzena****12:30**ean, mezea.**18:30**ean, sormen arrastia eta txokolatea.**Andra Mari jaiak Elizondo (Lemoa)****Urri lehenengoak 8, astelehena****12:30**ean, meza nagusia Andra Mari eleizan.**17:00**etan, haurrentzako jolas eta tailerrak, Zatzaparrak taldeak antolatuta.**20:00**etan, Zeñi Antzerki Taldeak *Dantzara* antzezlanaren aurkeztuko dau Elizondon.

ARRATIA

Eguraldia hartzean dozu kontuan mendira joaterakoan?**Erredakzioa**

Uda honetan, mendian istripu asko egon dira. Mendian eguraldi txarrak harrapatuta, erreskatau behar izan ditue mendizale batzuk. Jakinda Arratian mendirako zaletasun handia dagoala, arratiarrak mendira eguraldiaren iragarpenari begiratuta joaten diran jakin gura dogu oraingoan.

Itauna haxe da. "Eguraldi iragarpena jakinda joaten zara

mendira?". Eta erantzun posibleak barriz beste honeen artean aukeratu daitezke, "bai", "ez" edo "batzuetan".

Udako oporrak

Aurreko zenbakian ea udan oporrik izango ebezan itaundu geuntsen gure irakurleak eta gehienak (% 70) baiezkotzen erantzun dabe. Udan beharra egingo dabela erantzun dabe % 20k eta % 10ek langabezia dagozala esan dabe.

ARRATIA

Beldur Barik Lehiaketan lanak aurkezteko epea zabalik**Erredakzioa**

Hirugarrenez, Arratiako Udalen Mankomunidadeko Bardintasan Zerbitzuak Beldur Barik Lehiaketea antolatuko dau Arratian. Lehiaketa hau bikotxa da, alde batetik lehiaketa globala eta bestetik, Arratiako lehiaketea. Lanak aurkezteko epea zabalik dago

zemendiaren 12ra arte.

Gehienez 5 minutuko iruapena daukien ikus-entzunezkoak dira aurkeztu beharreko lanak eta kategoria bi dagoz, 12 eta 17 urte bitartekoa eta 18 eta 26 urte bitartekoa. Arratian kategoria bakoitzean 300 euroko sari bat emongo da. Lanak, errespetuan, bardintasunean, askatasunean,

autonomian, erantzunkidetasunean eta indarkeriaren kontrako konpromiso sendoan oinarritutako jarrerak ikustarazotzen behar dabez.



ARRATIA

Areatzako Astondoa Pirotekniak irabazi dau Bilboko su artifizialen lehiaketea

Erredakzioa

Astondoa Pirotekniak irabazi dau aurten, XXIV. Villa de Bilbao Nazinoarteko Sari Nagusia, su artifizialen lehiaketea. Areatzako pirotekniaren txandea, abuztuaren 18an izan zan eta argia eta zaratea bateratutun ebazan ikuskizun ederra eskeini eban etxe arratiarrak. Amaierako traka zatatsua batez be gustau jakon publikoari.

Areatzakoa, Frantziako Euro-Bengale, Suediako Goteborg, Italiako Pirotekniak Martarello eta Ourenseko Pirotekniak Xaraivaren kontra lehiatu zan. Danak sano maila ona erakutsi eban baina epaimahaiak Areatzako enpresako

suai saria emotea ebatzi eban, erritmoa, kolorea eta esparruaren okupatzea balorau ondoren.

Arratiarrak Bilboko Aste Nagusiko partaide

Astondo Pirotekniak Nazinoarteko Sari Nagusia irabazi dau, eta, akaso, saririk handiena izan arren, ez da arratiarrak ekarri daben sari bakarra. Izan be, Bilboko Aste Nagusian sano partaidetza aktiboa izan dabe arratiarrak eta sari asko ekarri dabez etxera, gehienak herri kiroletan. Holan, Aitzol Atutxa aizkolari dimoztarrak irabazi eban Arenalean jokaturako Aizkolari Txapeldunen Saioa; Trontza mistoa Arkaitz Arana eta Irati Aston-

doak irabazi eban, Zeanuriko Andra-proba taldea Orikoen kontrako neurketan garaile atera zan...

Kale animazioan be protagonista izan ziran arratiarrak Bilboko Aste Nagusian. Izan be, Baly balearen desfilean, Maurizia, Leon eta Fasioren txotxongilo erraldoiak parte hartu eban, eta Babel Covers Juanma Labandibarren bandeak domeka gaua animau eban.

Hori gitxi balitz, txosnagunean Arratiako produktuak dastatu ahal izan ziran. Esate baterako, Mami-ki konparsearen txosnan Areatza eta Zeberiko produktuak egindako bokadillo gozoak saldu zituen.

IGORRE

Motor hotsa eta zezen mekanikoa hilaren 6an



Erredakzioa

Arratiako eta kanpotik etorritako motorzaleak Arratian zehar egingo dabe pasealdia euren motorren gainean hilaren 6an, eta egun osoko jaia ospatuko dabe. Zumo Negro eta Koiu taldeen kontzertuak Igorreko gaztetxean emongo deusie amaierera urteroko hitzordu honeri.

Arratiako Motor taldeak antolatutun dau gurean motorzaleen kontzertu hau, eta aurtengoa hamahirugarren aldia izango da. Kanpotik datozenak atsedena hartu ahal izan dagien motor aparkalekuaren ondoan, akanpaleku atondu dabe antolatzaileak. Izan be, ekitaldiz betetako egun luzea izango da aurtengoa.

Parrilladea eta zezen mekanikoa

Igorreko Berezi tabernan ba-

tuko dira motorzaleak goizeko 11:00etan, eta 12:00etan emongo deusie hasikerea ibilbideari. Arratiako bailara zeharkatu eta gero, 14:00etan, poteoa egingo dabe motorzaleak, trikitixegaz alaituta, bazkaltzeko guneraino eta 15:00etan, Berezi tabernan parrilladea egongo da doban. Arrastiko bostetan, jokoak aparkaleku gunean, zezen mekanikoa eta sariak eta ordubete beranduago, Garbe auzuneko La Bodeguilla tabernan pintxo potea egongo da. Amaitzeko, bederatziretan musika kontzertuak egongo dira Kiñu Gaztetxean hainbat taldegaz.

Igorreko Udalak, Kiñu Gaztetxeak, Arratiako Gurutze Gorriak, Berezi eta La Bodeguilla tabernak eta Areatzako bainuetxeak lagundu dabe motorzaleen jaiegundau antolatutun.

INBIU 2014 igorreztarron azokea geurea erakutsi!

irailaren 20an

AZOKA. STANDAK



11:00-13:00 azokea 105 aparkalekuaren ondoan.
13:00-13:30 danon artean azokea batu.
13:30-14:45 Bertso trikitipoteo jantzaria.
15:00 herri bazkaria.
16:45 danok bidekurutzera "Etorkizune euskeraz!" datorrela erakutsiko dogu.
18:30 erromeria, Jokaldi. AMEk antolatuta.
20:30 txokolatea danontzat BEINKE merkatarien euskera taldearen eskutik.

* Txosnea egongo da

Jaialdia goizean 105 aparkalekuaren ondoan izango da eta eguerditik aurrera, Kultur Etxeko Lasarte plazan, euria egin ezkerero, frontoian eta eskolako aterpean.

11:00-13.00

Ekintza dinamikoak, karpatik kanpo: Zekorrek Errugbi Taldea, Arratia Futbol Taldea, Igorreko Esku Pelota, Luis Iruarizaga Abesbatza, Eale, Biziartea eta Arratiako Musika Eskolea.



Zugaitik BEGITUTEN dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre
Tfnoa: 94 631 80 04

Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsinoak
Lentillen adaptazioa
Kiroletarako betaurrekoak
Sabino Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

BEGOÑA PEDROSA

Begoña Pedrosak hartu dau HUHEZIKo gestinoa hileon

Begoña Pedrosa Areatzakoa, Mondragon Unibertsitateko (MU) Humanidade eta Hezkuntza Zientzietako (HUHEZI) Fakultadeko dekanoa da. Zezeilan izentau eben eta lehenengo hilabete honeetan Nekane Arratibelegaz alkarlanean ibili da.

HUHEZIKo dekanook, Mondragon Unibertsitatearen ezaugarrien barri emon eta hezitzaile eta komunikatzaile profesionalen garrantziaz egin dau berba BEGITUGAZ.



Begoña Pedrosa aretazatarra, HUHEZIKo dekanoa.

Erredakzinoa

HUHEZI Mondragon Unibertsitateko Fakultade bat da. Zerk bereizten dau Mondragon Unibertsitatea eta zerk HUHEZI bera?

Mondragon Unibertsitateak ekimen sozial batetik abiatzen dan proiektua dauka martxan eta lau fakultadek osotuten dabe: Goi Eskola Politeknikoa (Ingenieritza Fakultadea), Enpresa Fakultadea, HUHEZI eta Basque Culinary Centre. Proiektua, berez, Goi Eskola Politeknikoagaz abiatu zan 1940 hamarkadan. Arizmendiarrieta abadeak ipini eban martxan, gizarte eragile batzuen partaidetzeagaz. Ondoren, 1960ko hamarkadan, Enpresa Fakultadea ipini zan martxan. Gure fakultadea, HUHEZI Fakultadea, Eskoriatzako Irakasle Eskolearen lekukoa jasota sortu zan. Irakasle Eskolea 1976 urtean jaio zan, momentu haretan beharizan jakin bat egoalako: irakasleak euskalduntzea. Eta 1997 urtean Mondragon Unibertsitatea sortu zan. Gastronomía Zientzietako Fakultadea, barriz, 2011n sortu zan, Donostian dagoan Basque Culinary Center izenagaz ezagutzen dana. Izen handia hartu dau fakultade honek. Proiektu potentea da eta nazioarteko ikasle asko dagoz lau-

garren fakultade barri honetan.

HUHEZIKo jagokonez, hiru dira gure egitekoak, unibersidadearen ikuspegitik gizartearen humanizazioan eragiteko jakintza garatzea eta aldi berean, hezkuntzan, komunikazioan eta kooperatibagintzan profesionalak heztea kooperazio balioetan. Bereizten gaituana da euskera eta barrikuntza hartzean dauala ardatz baina mundu eleanitz eta kulturantz batera begira; hau da, gaur egun daukaguzan erronkak eta kanpo eskakizunak kontuan hartuta. Irakasle eskola zanetik, gaur egunera arte itzelezko hazkuntza izan dau. Mondragon Unibertsitatearen

barrian fakultade moduan sartu zanetik.

Fakultadeak izan dauan bultzakadea eta iraultza ikaragarria izan da, batez be atzenengo 6-7 urteotan. Prozesu honetan murgilduta gagoz eta gure erronka da, gure proiektu lokal horretatik eta euskal gizartearen errotuta dagozan grinak mantenduz, bultzatuz eta sendotuz, kanpora begira eta kanpotik datozen eskakizunai be aurre egitea. Horixe da gure erronkarik handiena momentu honetan.

HUHEZIKo campus bi daukaz. Hezkuntza karrerak Eskoriatzan dagoz eta Ikusentzunezko Komunikazioa, Aretxabaletan. Komunikatzaileak be prestatzen doguz. Erronka handia da: batetik hezitzaileak izango diranak formatzen doguz, eta bestetik, komunikatzaileak izango diranak. Gizarte baten zutabe diran profesionalak hain zuzen be.

Esan dozu iraultza handi bat egon dala unibersidadean, azaldu apur bat hori.

Bai, Bologna prozesua martxan jarri zan orain dala urte batzuk; helburua izan da Goi-mailako Hezkuntza esparrua sortzea Europa mailan eta horrek ekarri eban, adibidez, Diplomaturak eta Lizentziaturak Gradu bihurtutea. Orain ikasketak lau urteko iraupena daukie eta gero urte biko masterra egiteko aukerea dago.

Gu aurrendariak izan gara Hezkuntza Graduak jagokinez, ze lehenengo Gradua Hezkuntzan, Euskal Herri mailan, gure fakulta-

"Humanidadeak garrantzia eta pisua euki beharko leuke hasikerako formaziotik etenbako formazinoraino"

"Gure erronka euskal gizartearen errotuta dagozan grinak mantenduz, kanpotik datozen eskakizunai be aurre egitea da"

dean abiatu zan. Momentu honetan, proiektua mamitzen hasi gara, gorpuzten eta hobekuntzak sartzean eta aldaketak etorri daitezkez barriro. Lau urtetako ikasketak 3 urtetara pasauko ei dira, gehi urte biko derrigorrezko masterra. Ez dakigu zer gertatuko dan baina prest egon behar gara horretarako be.

Hau Europako erredua da. Espainian egin ziran aldaketak Bologna prozesuagaz ez datoz bat Europako beste estadietan hartu ziran ebatiakaz kasu guztietan.

Zezeilan izentau zinduezan dekanoo eta ordutik hona Nekane Arratibelegaz konpartidu dozu kargua. Zelangoa izan da esperientzia hori?

Intensoa eta aldi berean emonkorra. Arratibel eta biok lankideak gara, alkarregaz ibili izan gara materia batzuk irakasten eta gestinoan be, ikekerta arloan. Guk taldeka egiten dogu behar HUHEZIKo, parte-hartzea eta talde lana gure proiektuaren beste zutabeak dira eta. Dekano moduan, Nekane 8 urtetan jardun dau gure fakultadean. Lehenengo andra dekanoo izan da eta orain nik hartzean dot testigua. Bere begiradea, bere laguntzea funtsezkoa izan da prestakuntza honetan. Atzenengo lau hilabeteotako prestakuntza trinko-trinkoa izan da. Orain, jarraituko dot ikerketan, hari hori ez mozteko, baina batez be gestinoan murgilduko naz eta horretarako lau hilabete honeek Arratibelegaz oso inportanteak izan dira.

Zein da HUHEZIKo dekanooaren funtzinoa?

Dekanoaren funtzinoa da fakultadearen gestino erredua antolatzea, indartzea eta HUHEZIKo egitasmoa aurrera erotea, beti be HUHEZIKo osatzen daben persona guztien parte-hartzea eta motibazioa bultzatuz.

MUK bere berezitasuna dauka. Normalean unibersidadeetan errektoreak eta errektoreordeak egoten dira eta gero, fakultade bakoetak bere dekanoo eta dekanordea daukaz. Guk sinplifikauta daukagu egitura hori. Errektore bat daukagu, errektoreorde akademiko bat eta fakultade bakoetak bere dekanoo eta zuzendaritza talde

Bizkaifisios SLk bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari Klinika
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1. Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urtetik 18ra. Euskalduna, kalitatezkoa, herrikoia
Arratia BHI
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Faxa: 94 673 90 65 Artea
Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
I. Zubizarreta HI
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre
Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
J.B. Eguskiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima
Hour hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Bortxeragoak, Hezkuntza zirkloak

propioa. Holan, lau dekanogoz zuzendaritzan, gehi errektoreordea, eremu akademiko guztia kudeatzen dauana, eta errektorea. Beraz, dekanoren funtzioa, batetik, fakultadean dagoan proiektua bideratzea da, eta bestetik, MU proiektuan eta zuzendaritzan parte hartzea.

Fakultade bakotxa enpresa bat da, kooperatiba bat. Mondragon taldean gagoz baina juridikoki fakultadeak autonomoak dira. Dekanoaren figurak fakultadea ordezkatzeko dau alderdi instituzional edo akademikoan, baina gerentzia be erosten dau. Hau da, alderdi ekonomikoa eta enpresariala be kudeatzen dauz. Fakultade bakotxean, dekanoa gerentea da.

Zenbat ikasle daukazue?

Gure fakultadean momentu honetan 1.200 ikasle inguru daukaguz, graduak, graduondoak eta doktorego programea kontuan hartuta. MUn guztira, 5.000 ikaslara hurbilduko gara, gradu eta graduondoen artean. Horrez gain, MU mailan 5000 profesional inguru daukaguz etenbako formazinoako moduluak eta ikastaroak jasoten. Etenbako formazinoak proiektuaren beste zutabe bat da.

Bologna etorri zanean gu hasita gengoan gure proiektu propioa eragiten, konpetentzietan oinarritzen dan proiektua, orain bolo-bolo dabilena. 2001 urtean, Mendeberrit deitzean zana. Fakultade guztiak alkatu egin ziran, eredu propioa eragiteko eta unibersidade konprometidu eta barritzaile bat egiteko. Eredu horrek beharginak eta ikasleak inpliketan ditu hainbat prozesutan: ebatziak hartzean, esaterako. Kurrikulumak iraultza handia izan eban. Izan be, materiak moduluka antolatuten dira, eta 5-6 irakasletutorek parte hartzean dabe koordinatzaile batez. Holan egiten dira proiektuak. Eta ikasleak be parte hartzean dabe hor. Ikasturte honetan beste proiektu barritzaile baten murgilduko gara lau fakultadeen artean, Mendeberrit 2020. Ilusinoz eta konpromiso handiagaz helduko deusagu.

Orduan, hilda dagoz klase magistralak?

Teorian bai, nahiz eta askotan beharrezkoak diran hainbat alderdi osotutako. Bolognak eskatu dau aldaketa handiak ezartzea: mintegi formatoak, tailer formatoak, ebaluazio sistema osoa barritzea... Guk hori Bologna etorri baino lehen egiten genduan. Guretzat barrikuntzea da ardatza, barrikuntza barik ez dago aldaketarik

eta. MU unibersidade euskalduna da, karrera guztiak euskeraz emoten dira; dana dala, atzen urteotan aldaketa asko sartu dira eleaniztasuna bultzatzeko, beti be, euskal hizkuntza eta kultura ardatz dala onartuta. Horrez gain, hainbat karrera online be eskeintzen dira, eta horretarako iraultza pedagogikoa eta barrikuntzea sustatu behar dira irakasle zein ikasleen artean.

Ze egoeratan dagoz humanidadeak eta hezkuntza zientziak?

Guk Humanidadeak karrera ez daukagu. Bere sasoiak Irakasle Eskola izatetik fakultade izatera pasau zanean, eskeitzen genduan karrera bat Humanidadeak eta Enpresa deitzean zana, ospe handia izan ebana eta bere bidea egin ebana bere momentuko erronkai erantzuten.

Orain, Giza Zientzietako karrerak daukaguz eta Giza Zientzien esparruan hainbat espezialista daukagu fakultadean. Lankidetzak ikertalde bat be badaukagu, nahiko potentea, kooperatibismoan lan egiten dauana. Nire ustez, humanidadeak, modu orokorrean ulertuta, unibersidadean funtsezkoak dira. Ez bakarrik hezkuntza fakultade baten, edozein karreratan minimo batzuk egon behar dira. Humanidadeak garrantzia eta pisua euki beharko leuke hasierako formazinoetik etenbako formazinoaraino. Eta eskola munduan be dagozan eronkak, andren kontrako indarkeria, arrazakeria... hortik heldu behar dira. Guk ikertaldeak daukaguz horretan. Momentu honetan, aldaketa batzuk datoz, baina uste dot saiatu behar garala gizartearen beharri erantzuteko proiektuak bultzatzen: eskola munduan, unibersidade munduan, gizartearen... eta hor daukaguz humanidadeak, baloreak eta alkarbizikidetzak.

Esan dozu daukazuela talde bat ikertzen dauana andrazkoen kontrako indarkeria?

Indarkeria ez, baina badaukaguz ikerlari batzuk generoaren inguruan izena daukienak, Amelia Barquin, esaterako. Batez be kultura aniztasunean, bai eskola munduan eta bai gizarte mailan. Ikertalderen izena ELEA da.

Horrez gain, guk sortutako materiak daukaguz, baloreetan oinarritzen diranak: generoaren rola eta zelantza transmitidu hori eskolan... Hor hutsunea dago. Ez gara ohartuten zelantza egiten dogun berba, zelantza mobiduten garan, ze esaten dogun, ze hizkuntza erabilten dogun... Ikertaldeak batez be kultur aniztasuna, aniztasuna eta bizikidetzak ikertuten dauz eta hor sartzean da generoaren lanketea. Eta hori kurrikulumean sartu dogu guk gura izan dogulako, beharrezkoa dalako hezitzaileen formazinoan.



Hezkuntzako karrerak hazkuntze handia izan dabela dinozu. Zergaitik hau? Gurean ez da jaiotza-tasa handirik.

Ez dakit. Nik uste gazte euskaldunak badaukiela grin hori, hezkuntzan eragiteko grina, inguru lokalean parte hartzeako. Eta gure eskeintzea ez da mugatzen irakasle izateko konpetentzietara, hau da, konpetentzia espezifikotara. Profesionalak ekintzaletasunera eta barrikuntzara bideratzea da gure helburua. Askoz be globalagoa da. Indar handia ipinten dogu zeharkako konpetentzietan: alkarregaz biziten ikastea, autonomia eta proaktibitatea sustatzeko erremintak lantzean doguz... eta gaur egun, zabaldu egin behar dira hezitzaileen lan egiteko esparruak: inguruan hainbat behar dagoz eta horreei erantzun behar jakie.

Badaukagu beste karrera bat be, Ikusentzunezko Komunikazinoak da. Honek be atzenengo 3 urteotan itzelezko hazkuntza izan dau gure fakultadean. Ikusentzunezko Komunikazinoak Euskal Herriko Unibertsitateak eta geuk eskeintzen dogu Erkidegoan. Proiektu propioa daukagu, hedabide euskaldunak eta profesional integralagoak sortzeako. Orain dala urte bi campus barria egin genduan eta urtean urtean ikasle gehiago daukaguz.

Gaur egungo erronken artean eleaniztasuna aitatu dozu. Bai. Hori da momentu honetan daukagun beste gai potente bat hezkuntza munduan eta gizartearen, eleaniztasunari zelantza heldu.

Ni atzerriko hizkuntzan espezialista izan naz urteetan. Ingelesa ikasteko ea ordu gehiago emon behar dan egon da eztabaidagai. Ingelesa ez da edozein modutan emon behar. Oso ondo aztertu behar da eskola bakotxa, eta ez eskola bakotxa bakarrik, komunitate bakotxa ze momentutan dagoan. Areatza bat hartu ahal dot, adibidez, erreferente moduan. Gure urteetan ingelesa ikasi behar dabe, jakina, baina goazen aztertzea zein dan euskerearen egoera, eskolatik hasita eta plazaraino. Gai hori patxadaz hartu behar dogu. Komunitate osoa bildu eta berba egin patxadaz: udala, gurasoak, eskola, irakasleak...

Ez da ingeles ordu gehiago ala gitxiago, pentsatu behar dogu zer behar dogun, non gagozan. Hor dago gakoak. Ze pedagogia mota egin gura dogun aztertu behar da. Eta ingelesa esaten dodanean, euskerea be esaten dot, ze hizkuntzea leku guztietan dago. Edozein jakintza arlo landuten danean hizkuntzea emoten da, jakintza arlo bakotxak bere hizkuntza propioa dauka eta. Hizkuntza irakatsi egin beharko litzateke modu integral eta funtzional batean, jakintza arloakaz batera. Proiektu integralak eta kokatuak bultzatu behar doguz eskoletan, zentzu honetan.

Humanidadeak ikasi ezker, topau leike beharra klaseko onena izan barik?

Gure kasuan, Gizarte Zientzietako karrerak daukaguz, eta atzen urteotan kolokazino ratio nahiko altua daukagu.

Orain lan gitxiago egon daiteke krisialdiagaz, aldaketa handiak egon dira eta. Baina uste dot humanidadeak leku inportantea daukala gizartearen momentu honetan. Bai euskal gizarteari begira, bai kanpora begira. Gertatutakoak gertatuta, preminea dago enpresa mundua beste modu batean ulertzeko, eta hausnarketa bat egiteko zer garan eta nora joan behar dogun eta nola egingo dogun hori. Enpresa munduan igarri da aldaketak dagozala. Gure kasuan, Lanki Ikertegiaren funtzioa, adibidez, da kooperatibismoaren inguruko azterketea enpresa mundura eroatea eta gizarte solidarioaren alde egitea. Baina horretarako paradigma aldaketa bat behar da eta hori ez da egiten egun batetik bestera.

MUk kanpo eskakizun handia dauka. Zelantza moldatzen dira kanpotik etorritako ikasleak ikasketak euskeraz izanda?

Gure fakultadearen kasuan, adibidez, kanpotik datozen ikasle gehienak Erasmus programeagaz etortzen dira eta guk nazioarteko programa bi daukaguz, batez be ingelesez eskeintzen doguzanak. Horretan, txertatzen doguz hainbat modulu euskal kulturari eta euskal identitateari buruz eta euskal hedabideen inguruan, ikus-entzunezkoentzat. Eta ikasleak praktikak egiten dabez eskoletan eta komunikabideetan. Gainera, gure karreratan ingelesez be eskeintzen doguz materia batzuk, ze mundu honetan profesionalak ingeleseko maila bat behar dabe eta Erasmus ikasleak bertan parte hartzean dabe. Esperientzia oso polita da gure ikasleentzat.

Bestetik, gure ikasleak be urtetan dabe kanpora, praktikak egitera adibidez. Atzenengo ikasturtean 50 inguru joan ziran Latinoamerikara eta Erresuma Batura. Eta Erasmus programeagaz Danimarkara, Herberetara eta Islandiara adibidez.

Astaldi eta suspertze soziokulturalerako **IKASTAROAK** Bizkaiko Urtxintxa Eskola > Matrikulazio epea irailaren 1etik 30era

IKASTARO LUZEAK

- Astialdiko begiralea
- Astialdiko zuzendari ikastaroa
- Jendarte kultur dinamizatzailea
- Hezikidetzan aditua
- Nola sustatu parte-hartzea?
- Heziketa premia bereziak astialdian
- Heziketa premia bereziak eta sexualitatea
- Kulturarteko hezkuntzaren hastapenak

IKASTARO LABURRAK

- Barreterapia
- Eraldaketarako hezkuntza eta kontsumo arduratsua
- Haurren parte-hartzea sustatzeko teknikak
- Zer behar dute adimen gaibasan handiko pertsonak?
- Kontu-kontari bizitzaren hari
- Arteterapia, gorputza eta dantza adierazpena

Zabalbide, 26
48006 BILBO
T: 94 432 04 45
urtxintxaeskola.org

Euskaraz blai

Euskaraz blai

14-15 IKASTURTEA

matrikula zabalik

Izena emateko epea irailaren 1etik 26ra

EUSKALDUNTZE ETA ALFABETATZE IKASTAROAK

Astelehenetik ostegunera: egunean 2, 30 ordu

Ordutegia

9:30-12:00 · 14:00-16:30 · 16:30-19:00 · 19:00-21:30

H.E. (perfilak) prestatzeko ikastaroak

2 egun astean, egunean 2,30 ordu

TRINKOAK

Egunean 4 edo 5 ordukoak

HABEren 1go, 2. eta 3. mailak, EGA, Hizkuntza Eskakizunak

AUTOIKASKUNTZA

Multimedia gela eta ikus-entzunezko baliabideak

On-line ikastaroak

TALDE BEREZIAK: merkatariak**DESKONTUAK ETA BEKAK**Irailaren 1go hamabostaldian matrikulatuz gero,
%20ko deskontuaIkasturteko asistentzia %90ekoa izanez gero, matrikularen
%50 berreskuratzen da

2014/15 ikasturteko

matrikula-ordutegia

Goizez: 10.00-13:30

Arratsaldez: 16:00-19:00

GALDAKAKO UDAL EUSKALTEGIA

Muguru 6- 48960 Galdakao

T.944566174 F.944571413

euskaltegia@galdakao.net



Sartu zaitez Galdakako euskaltegiko
webgune berrian:
<http://www.galdakao.net/euskaltegi>



**UDAL
EUSKALTEGIAK**

• euskara klaseak

14-15

IKASTURTEA



AMEKO EGUNA 2014

arratiako merkatarien elkarteak

Irailaren 13an
IGORREN - KULTUR ETXEKO PLAZAN
EURIE BADA ESKOLATAKO ATERPEAN



PUZGARRIAK

HINCHABLES

11:00etan

TXU-TXU TRENA

11:00etatik - 14:30etara

17:00etatik - 19:30etara



UMEENTZAKO

TAILERRAK

17:00etatik - 19:00etara

KONTZERTUA

19:00etan



PINTXOAK

BARBACOA

20:00etan

Gratis!!!



IGORREN EROSI



V
A
R
G
A
N
K
-
L
E
H
-
A
K
E
T
E
A
V



ZORNOTZA Udal Euskaltegia

2014-2015 IKASTURTEA

Astean 6 ordu, astelehenetik ostegunera (200 ordu)
(LANGABETUEK 10 €)

Autoikaskuntza (190 ordu)
(PLAZA MUGATUAK)

Izen-ematea irailaren 1etik 23ra
Zornotza Udal Euskaltegian

94 6732026
euskaltegia@amtx.net
San Pedro kalea 5



V

Argazki lehiaketea:

bialdu zure argazkiak begitu@topagunea.com
helbidera hilaren 25a baino lehenago.

Sari ederra eroan zeinke!!

MENDIA

Zeanuriko Ermiten XXVII.
Mendiko Martxea

Jon Urutxurtu

Urri lehenengoaren 6an, zapatua, egingo da Zeanuriko Ermiten Mendi Martxea. Aurtengoagaz hogeta zazpigarren urtea beteko dau 1988an jaio zan eta klasiko bihurtu dan oinezko martxa honek. Orduan antolatu eban lehen aldiz Joko Alai Elkarteko mendi sailak, eta ordutik hona hutsik egin barik eutsi deusie zeanurizarrak urteroko ziteari.

Helburuak hasikerako berberak dira: goiza natureagaz hartu-emo-netan eta kirola eginez igarotea, eta herritarrai zein kanpoztarrai Zeanuriko inguru zabalak eta on-dare kulturala ezagutzera emotea.

Ez dira gitxi, izan be, herri honetan sakabanaturik dagozan ermita edota eleizak; guztira hogeit.

Urtekerea herriko frontoian izango da, goizeko 07:30ean, eta ibilbide osoa egiten dabenak, 35 bat kilometrotan zehar, heme-retzi ermita edota eleiza bisitauko ditue, aurten be Egiriñako (Gor-beia) Edurretako Amarena kanpo geratuko da eta.

Ibilbide osoa egin gura ez da-benentzat, beste aukera bi, 15 eta 28 kilometrokoak, prestatu ditue antolatzaileak. Ertaina, San Juanetik helmugara joateko auke-rea emoten dauana eta laburra, San Migeletik helmugara doana.

Martxeari buruzko xehetasunak

Izena emotea: 8 euro sartu urri lehenengoaren 3a baino lehen BBK-ko kontu honetan: 2095 0335 29 3830586275. 10€ egun berean 06:45etik aurrera, herriko plazan. 4€ 14 urtetik beherakoak eta 4€ Joko-Alaiko bazkideak.

Urtekerea: 07:30ean, herriko frontoian.

Osasun-zaintza, jan-edan eta kontrol puntuak egongo dira ibilbidean zehar.

Helmugako kontrola 15:30ak arte zabalik egongo da.

Amaieran opari bat emongo da.

Herriko frontoian dutxak zabalik egongo dira.

Laguntzaileak: Zeanuriko Udala, Norbega-Coca-Cola, Arratiako Gurutze Gorria, Txoko Sagarna, Jubiladuen taberna, Frontoiko taberna, Loli-Leire dendea eta Batzokia.



San Blas ermitea.

BOLA JOKOA

Maximo Beitiarentzat
Zeanuriko Bola Txapelketea

Jon Urutxurtu

Maximo Beitiak eskuratu dau 2014ko Zeanuriko Bola Txapelketea. Finala San Lontzon jokatu zan, abuztuaren 10ean, San Lontzo bigarren, eta bertan urtean zehar auzuneetan jokatu ziran hiru txapelketetako —Altzuakoa, San Justokoa eta San Lontzo bertakoa— lehen lau sailkatuak hartu eban parte. Maximok

"gerrea" jokatu behar izan eban Jon Arangurenegaz, eta hemen lortu eban 2014ko txapela. Bigarren eta hirugarren tokietan Jon Aranguren eta Felix Artetxe sailkatu ziran.

Zeanuriko bolarien hurrengo zitea Altzutan izango da urri bigarrenaren 4an, zapatuan, San Migeletako egitarauaren barruan, eta kofradien arteko taldekako txapelketea jokatu da bertan.

MENDIA

Izenik Bako Torrera igo
dira Txikon eta Maiz

Erredakzioa

Abuztuaren 20an bertan behera itxi eban Txikon, Maiz eta Palmadak "Bushido" bidetik Trangoko Torre Handia eskaletako erronka, baina horrek itxitako zapore mingotsa kentzeako 22an, Maizek eta Txikonek Izenik Bako Torrea (6.251 m.) eskalau eben "Eternal Flame" bidetik.

Egun bi baino ez eukien hori egiteko bueltau behar ziralako, baina 36 orduan lortu eban tontorra zapaltzea. Hona igoteko ebatzia Trangoko Torre Handitik bajatukeran hartu eban baina ez eban jakitera emon tontorrean egon arte.

Satelite bidez deitu eutsan Txikonek bere segmentu taldeari

tontorrean egoanean. "Ontxe hel-du gara tontorrera. Izenik Bako Torrearen tontorrean gagoz. Atzo ur-



Alex Txikon.

ten ginan goizeko seiretan. Ordu batzuetako atsedendia hartu dogu *sunny terracen* eta goraino igo gara takada baten. 29 zati at-era jakuz. Bide ikaragarri polita da" esan eban lemoztarrak.

Aurreikusitakoa bertan behera

Arreikusita egoana, Trangoko Torre Handia "Bushido" bidetik eskaletea, bertan behera itxi behar izan eban, David Palmada espedizinkidearen "motibazio falteagaitik". Katalanak anginak izan eban beheko kanpalekuan, eta horman ez zala "inoz eroso sentidu" azaldu eban alpinistak Berriako Blogariak-en.

Hiru alpinistak zortzi egun egin eban Trangoko Torre Handiaren ipar mendebaldeko horman, baina "korapilotsuena" eginda euki arren, "gatxena" falta jakielazaldu eban Txikonek. Hirugarren kanpalekua, 5.200 m. tara ipinita eukien. Trangoko Torreak 6.286 m. ditu eta munduko horma gaxtenetakoa da.

BTT

Mendiko
bizikletea
Ubiden

Erredakzioa

Ubideko VI. Mendi Bizikleta Martxea hilaren 13an izango da Amexier Mendi Taldeak eta Ubideko Udalak antolatuta. Ibilbideak 41 km. ditu. Izena hilaren 12ra arte emon daiteke Amexier Mendi Taldearen webgunean edota martxearen egunean bertan herriko frontoian.

Ubideetik urtenda txirindulariak, Saldropo, Upeteko landak, Salutrieta, Otzarreta, Upete eta Zubizolatik pasauko dira. Gero Ubiden horniketea izango dabe eta ondoren, Siskiño, Alaran, Harrobiak, Letxaranda eta Atxurdinetik pasauko dira, Ubideko helmugara ailegetako.

AIZKOREA

Atutxak eta
Mugertzak
irabazi eban
Latasa Saria

Erredakzioa

Sunbillan (Nafarroa) jokatu zan XIII. Latasa Saria abuztuaren 12an eta dimoztarrak eta mutrikuarak lortu eban txapela, beste lau



bikoteai aldea aterata. Bikoteok, Nazabal eta Erasun, Azurmendi eta Rekondo, Larretxea eta Etxebarria, eta Olasagasti eta Otaegi ziran. Bikote bakotzak 19 kanaerdiko eta sei 60 ontzako ebago behar izan eban.

Hirugarren enborrean Atutxak eta Mugertzak aurrean jarrea lortu eban eta 26 minutu eta 23 segundutan gelditu eban erlojua. Bigarren Nazabal eta Erasunek egin eban 28:05 kronoagaz.

Bilboko Arenalean

Bilboko Aste Nagusian, abuztuaren 21ean, Aitzol Atutxak saioa irabazi eta jokoan ziran puntu biak lortu eban. Aizkolari Txapeldunen Liga 2014rako zan puntuagarria saio hori. Jon Rekondori nagusitu jakon dimoztarrak. 20 minutu eta 16 segundu behar izan eban beharra amaituteko; Jon Rekondok, barriz, 22 minutu eta 10 segundu. Liga honetako hurrengo hitzordua urri lehenengoaren 8an izango da Urdulizen.

www.begitu.org

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

begitu
arratia ubide zeberio

MENDIA

Areatzako I. Mendi Astea eta III. Mendi Martxea

Erredakzioa

Areatzako lehenengo Mendi Astea antolatatu dabe AKKBk eta Udalak

alkarlanean hilaren 10etik 13ra. Argazki Lehiaketaren sari banaketea, Arratia Raidaren aurkezpen ofiziala, berbaldiak eta III. Areatzako Men-

di Martxeak osotuko dabe astea. Ekitaldiok Udal Aretan izango dira arrastiko 19:00etan.

Berbaldiak Julen Urdaibai mendi korrikalari bermeoztarrak eta Iñigo Gabiria Elorrioko kirolariak egingo dabez. "Lasterketak mundutik zehar: Antartida, Islandia, desertua, oihana..." eta "Mendiak oinen azpian: parapentea eta ni" gaien gainean egingo dabe berba hilaren 11 eta 12an, Urdaibaik eta Gabiriak, hurrengo hurrengo.

I. AKKB Argazki Lehiaketaren sari banaketea eta III. Arratia Raidaren aurkezpen ofiziala urri lehenengoaren 10ean izango dira.

III. Areatzako Mendi Martxea

Sendotuz doan martxa honek emongo deutso amaierera mendi asteari. Urri lehenengoaren 13an izango da eta ibiltariak goizeko 08:00etan batuko dira herriko plazan. Izena hilaren 11 baino lehenago emon ezker, zazpi euro ordaindu beharko da; egunean bertan emon ezker, hamar. Hornidurea -jatekoa zein edatekoa-, kamiseta teknikoa eta parrilladea helmugan dagoz prezio honen barruan.

Partaideak ibilbide bi daukiez aukeran. Laburrak 20 km. ditu. Areatzatik urten eta Kerezikoatxa, Hirumugarrieta, Asteitze eta Upotik pasauko dira mendizaleak Areatzako helmugara heldu aurretik. Martxa luzea egiten dabenak, barriz, 29 km. egin beharko ditue. Ibilbidea, Kerezikoatxa, Pagomakurre, Hirumugarrieta, Asteitze eta Upotik joango da.

Amaieran, Hesperia Areatzan gau bat eta Axtarte kirol dendako materiala zozketatuko dira.

hau zizurkildarra izan zan.

Zeanuriztarrak 594 kilo bedar ebagi ebazan, Alatzne Etxeburuak, barriz, 658,5 kilo. Argi ikusi zan ondo preparata etozala biak, izan be, igazko markak aidean itxi dabez segalariak. Txapeldunak igaz 578,5 kilo egin ebazan eta aurtengo Irati Astondoaren marka horren gainetik egon da. Baina, marka hori gainditu arren, Astondoak ezin izan dau txapela ekari. "Zorionak lehenengo eta behin Alatzneri aurtan be txapela iribazi dualalako. Ni osteria atzetik baina beharra gustura eginda!" dino Facebook-ean.

Astean beste bi desafio izan ebazan Zeanurikoak, trontza eta andra probak, eta biak irabazi ebazan.

SEGA

Gipuzkoarra nagusitu jakon Astondoari Sega Txapelketan

Erredakzioa

Abuztuaren 24an jokatu zan Aian Emakumezkoen II. Euskadiko Sega Txapelketa eta bigarren Alatzne Etxeburuak lortu eban txapela. Hogei minututan bedar gehien ebagiten ebanak eroango eban txapela eta



Irati Astondoa, Pabi Astondoa eta Bixente Mitxelenagaz.

TRONTZEA

Loiola eta Gumuzio EHko Trontza Txapelketara

Erredakzioa

Sei bikote lehiatuko dira Euskal Herriko Trontza Txapelketan eta bertan Aitor Loiola eta Ruben Gumuzio arratiarrak egongo dira. Baztanen izango da zitea seguruenik, baina herria eta eguna zehaztu barik dagoz oraindino.

Pasea, abuztuaren 15eko kanporaketara aurkeztu ziran guztiak lortu eben. Sei bikote ziran finalera pasauko ziranak eta zazpi eukien izena emonda, baina sei baino ez ziran aurkeztu Baillarriango (Gipuzkoa) kanporaketara. Arratiako bikoteak segarren egin eban, baina hau nahikoa izan zan finala jokatu ahal izateko.

ANDRA PROBAK



Zeanuriko taldea.

Zeanuriko andra proba taldea irabazle Bilboko Arenalean

Erredakzioa

Desafioa abuztuaren 22an izan zan, Bilboko Arenalean, Aste Nagusian. Zeanuriko zortzikoa Oriokoagaz neurtu eta irabazi egin eban proba. Arkaitz Aranek entrenetan dituan neskak 40 unte egin ebezan 20 minututan 500 kiloko harriagaz; Gipuzkoarrak, barriz, 38,5.

Publiko ugaria zan leku askotatik etorritakoa Bilboko jaietan gertatzen dan legez, behea bustita egoan eta horrek zaildu egin eban taldeen egitekoa. Dana dala, Zeanuriko talde hasi barriak irabazi eban, lan ederra egin eta gero.

Harriari tiraka, billaroztar bi ibili ziran, Ariane Landa eta Janire Campo; eta sei zeanuriztar: Nagore Dominguez, Garazi Elgeza-

bal, Maite Artetxe, Irati Astondoa, Laura Ortiz eta Belen Astondoa. Taldea Arratiara zabaltzea pentsetan dagozala esan eutsan BEGIRURI Arkaitz Arana entrenatzaileak. "Zortziko taldea behar da eta gatxa da Zeanuritik bakarrik lortutea. Orain Areatzako kirolari bi dagoz eta Arratiara zabaltzea pentsetan gagoz".

Trontzan be Arratiakoak irabazle

Egun bi lehenago, abuztuaren 20an, trontza mistoa izan zan Arenalean erakutsitako herri kirola. Bertan Arratiako ordezkari izan zan; izan be, Arkaitz Arana eta Irati Astondoak osotutako bikotea bikote napar baten kontra neurtu zan. Arratiarrak errez irabazi eutseen Ainhoa Mazkianan eta Bixente Mitxelena naparrai.

MENDIA

Gorbeako Gurutzea Lagunartekoak Gorbeiko kurutzera igoko dira

Erredakzioa

Datorren urri lehenengoaren 6an, zapatua, Peña Gorbeako Gurutzeak antolatuten dauan Gorbeira igoerearen hemeretzigarren edizioa izango da. Areatzako frontoian izango da abiapuntua, goizeko 09:00etan.

Kurutzean hamaiketako egin eta hamabiak aldera urteroko argazkia aterako dabe, gero, bazkaldu egingo dabe Pagomakurren. Han, hil diran bazkideai omenaldi bat egingo deutsee 14:30ean.

Gorbeiatik bajatukeran, txikiak olgetako leku bat izango

dabe Areatzako parkean horretarako ipiniko dan gunean. Gauean kopautua eta DJs Diskbreakers-ek egunaren bukaerea alaituko dabe Motxo tabernan. Ekintza honek Motxo tabernearen laguntza daukie eta edozeinek parte hartu ahal izango dau.

Lagunartearen webgunea martxan

Laster lagunartear egin dituan ekintzak, zein alkarteagaz lotutako informazioa konsultatu ahal izango da martxan ipini barri daben www.athleticgorbea.com webgunean.

IKASTAROA

Herriaren historiaren
gaineko ikastaroa

Areatzako plazea.

Erredakzioa

Areatzan "Areatzatik Billarora. Billarotik Areatzara" izeneko herriaren historiaren gaineko ikastaroa antolatuta dabe Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, hilaren 9, 10 eta 11 rako. Hiru sesino teoriko-praktiko izango ditu eta bisita gidatuak egiteko oinarritzko zertzeladak emongo dira bertan. Udaletxeko aretoan izango dira eskolak eta izena emoteko epea urri lehenengoaren 5era arte dago zabalik.

Sasoi desbardineta ondarean aditu diran lau historialarik emongo dabe Areatzaren historiaren gaineko maila handiko ikastaro hau. Lehengo saioan, Juan Manuel Gonzalez Cembellinek uriaren sorrerea eta Erdi Aroaren gaineko ikasgaiak landuko ditu; hurrengo egunean, Jesus Muñiz Petralandaren txandea izango da; berak Aro modernoa hartuko dau gaitzat. Aro garaikidea izango da atzen eguneko gaia eta hau Amaia Apraiz eta Ainar Martinezek jorratuko dabe.

BERTSO BAZKARIA

Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio
Lemoan urri lehenengoaren 13an

Lujanbio eta Arzallus.

Erredakzioa

Euskal Herriko bertsolari txapelduna eta txapeldunordea izango

dira Lemoan, urri lehenengoaren 13an Elizondoko bertso bazkarian. Gai jartzaile lanetan Igor Menika izango da. Tiketak udale-

txean erosi daitezke urri lehenengoaren 4a arte.

Amets Arzallusek 2013an Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia irabazi eban eta Maialen Lujanbio egin eban bigarren. Biak daukie Euskal Herriko txapela, 2009an Lujanbio izan zan txapelduna eta Arzallus txapeldunordea. Lujozko zitea beraz Lemoan, bertsozale guztientzat.

Bertso bazkaria Elizondoko plazan izango da eguraldia ona bada, eta kiroldegian txarra egin ezker.

Arratiako Musika Eskolea eta
batukada taldea

Bazkalurretik eta bazkalondan musikaz alaitutako poteoa egongo da Lemoan. Eguerdian, 13:00etan, Herradura tabernatik abiatuko dira eta Arratiako Musika Eskoleak ipiniko dau musikea; arrastian, barriz, 18:30ean izango da poteoa Zaparrada Batukada Taldeagaz.

Oparitu BEGITU-lagun!

Egizu zure laguna BEGITUREN harpidedun eta otzara bete kultura oparituko deutzazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegian eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

* Deitu 649 979 115 telefonora

35€, 55€
edo 75
Euroren truke



BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober ☎ 630 743 543
48.140 Igorre Manuel ☎ 661 848 793

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN ★ SOLARES
Polig. Mendietan, 3. 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 609 480 830 / fax: 609 900 717

ZEKUTZE
JATETXEA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel: 94 631 52 83
zekutejartze@hotmail.com

Dia %
PEDRO
AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

• KIRRU • ILEAPANDEGIA
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bajo - 48140 IGORRE (Bizkaia)
☎ 94 631 92 00

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a ☎ 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia ☎ 609-79-40-54

GESOREAK
basolo Emaldi
ENBEN ADMINISTRAZAILA
Abokatuak
☎ 620. 57.86.04
osierabasolo@hotmail.com
Bilbao-Zeanuri

umean made
sem
0-10
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • semmodu@hotmail.com

Gogoratu leku
barrian gagozala

IKUSKIZUNA

Ipuin musikatu ikuskizuna prestatu dabe Maite Arrese eta Mau Ziemkiewicz-ek

Mau Ziemkiewicz zeanuriztarrak 15 urte daroaz eszenatoki gainean, biola eta bibolina jotzen. Uda honetan, *Amodiozko Ipuinak* ikuskizuna aurkeztu dau bere lehengusina Maite Arresegaz batera Salamancan eta Durangon; Donostiako musika hamabostaldian English Baroque Soloists-akaz kontzertua jo dau Kursaal John Eliot Gardinerren zuzendaritzapean, eta musika-terapia apliketan dabil beharrean.

Londonen hamar urte bizi ostean, Euskal Herrira bueltau eta Donostian bizi da orain. Mundu zabalean kontzertuak jotzen ez dagoanean, behintzat.

Erredakzinoa

Zer dira Amodiozko Ipuinak?

Proiektu hau Maite Arrese Artabe nire lehengusinarena da. Bere proiektua da, berak proposatutakoa. Ipuin kontalaria da Maite, eta ipuin batzuk batzean hasi zan: batzuek lagun batzuk sortutakoak, beste bat Aralarreko San Migelen istorioa... eta bilduma bat egin dau. Gero pentsau eban, ipuinoi musika ipini ezker, polito geldituko litzatekela eta hor hasi ginan biok alkarlanean. Musika klasikoa sartu deutset, baita Irlandako musika, eta beste kanta batzuk.

Ipuin musikatu honeen emaldi bat, Salamankako La Casa

de las Conchas-en egin genduan uda hasieran. Eta gero Durangon, Durangoko jaialdian. Euskal Herriatik zabaltzeko gogoia daukagu.

Donostian bizi zara eta bertan jo zenduan musika hamabostaldian, baina Londoneko abesbatz eta orkestreagaz.



Mau Ziemkiewicz.

Bai, Monteverdi Choir eta English Baroque Soloists-akaz. Kontzertua oso ona izan zan, oso-oso ona. Eta Donostiako musika hamabostaldian jotea gauza handia da.

Orain urri lehenengoan Europatik bira bat egingo dogu. Pisan joko dogu, Pisako katedralean, Duomoan; hortik goaz Alemaniara... Zementian Kursaalera bueltauko naz baina beste talde bategaz, The Kings Consort taldeagaz, hain zuzen be.

Londoneko taldeakaz jotzen dodanean, ensaioak Londonen egiten doguz.

Bitartean, musika-terapia Euskal Herrian egiten dot. Eta Bartzelonan be egon naz orain astebate festibal baten jotzen.

Joteko gogoagaz nago, klaseak emoteko gogoagaz eta musika-terapia egiteko be bai. Aitor Loroño eta Carles Perezek emoten daben masterrean klase batzuk emotera noa eta musika-terapia egiten nago Harrera Etxeetan gazteakaz. Zaharretxe baten be bai, Bilbon.

Musika-terapia terapia alternatibo bat da?

Bai. Terapia honen bidez nahiko azkar konektetan da gazteakaz, umeakaz, eta berba egin ezin dabena. Orduan behar terapeutikoa be oso arin egin daiteke. Eta nik

pentsetan dot ondo hartu dala eta jentek balorau egiten dauala.

Nik Londonen ikasi dot. Hiru urte-tako ikasketak dira, masterra. Ez da ikastaro bat. Eta musika-terapia ez da CDak ipintea baten bateri edo pieza bat jotea. Musika egitea da, hartu-emon musikal bat sortzea pazienteagaz. Helburuak terapeutikoa dira, ez dira musikalak. Musika da terapiarako erabilten dogun erremintea.

Orain Bilboko kursoan nago. Hemeko maila eta Londongoa bateratu behar dira, jentek eskatuten dauanean musika-terapeuta bat maila batekoa izan daiteke lortzeko, eta lanbide hau apur bat kontrolauta egoteko. Barria da eta nik gura dot zabaldutea. Musika-terapiak oso eremu zabala dauka eta ulertuten bada zer dan eta erreguletan badira ikasketak, lagundu leikio jente askori.

Egin daitezke gauza biak, kontzertuak jo mundu zabalean eta musika-terapia landu eta bulztatu? Ala eszenatokiak joteari itxi beharko deutsazu?

Ezin deutsat joteari itxi, ze eszenatokia gustetan bajatzu ezin dozu itxi. Hamabost urte intensibo izan dira eta jarraituteko asmoa daukat. Deitu ezker jira bat egiteko, ezin da ezetz esan: orkestran mundu osoko jentea dago, jentea mobidu egiten da eta musikan batzean gara danok.

Ni musika barrokoan nago espezializata eta Donostian jo genduan horixe izan zan. Baina musika modernoagoa be jotzen dot taldeetan, musikeari ez deutsadaz atek zarratuten.

IKASTAROAK

Hainbat ikastaro 2014-2015ean

Erredakzinoa

Ikastea bizi kalidatea hobetutea dala ondo dakie arratiarrak eta datorren ikasturtean aurreko ikasturteetan arrakasta izan daben ikastaroetan zein beste barri batzuetan izena emoteko aukerea izango dabe. Sano prezio onean udalak subentzietan ditue-eta, osasuntsu

egoteko hain garrantzi handikoak diran edadekoentzako gimnasia edo pilates moduko ikastaroak ia herri guztietan eskeiniko ditue.

Ondino eskeintzea guztiz zehaztu barik egon arren, urtero lez, ingelesa, informatika eta euskera, edota sukaldaritzea eta literatura ikasteko aukerak ez dira faltuko gure eremuan. Eskulanak eta Arte Apliakauk

be arrakastatsua izaten dira eta ikasle gitxineko kopurua gaintu izaten dabe Igorren, Lemoan, Zea-nurin eta Bedian. Dana dala, herri bakotzak bere berezitasunak ditu eta ikastaro bitxiak egin daitezke gurean. Holan, Arantzazun, esate baterako, Hip-hop ikastaroa eskeintzen dabe. "Igazkoak eskeiniko doguz, Pilates, Eskulanak, Yoga, Hip-hop, Euskal jantzak... eta gitxienez sei lagunek izena emon ezker, ipiniko doguz martxan. Gainera, gurasoak eskatuta 2 eta 4 urte arteko umeentzako ingeles ikastaroak subentzionaiko

doguz. Andra taldearen ekintza batzuk be diruz lagunduko doguz" azaldu deutso Bego Llano Arantzazuko alkateak BEGITURI.

Bedian matrikula epea zabalik

Bedian hileagaz batera zabaldu eben ikastaroetan matrikulatzeko epea eta hilaren 19ra arte egin ahal izango da hurrengo ikastaro honetan: Egurra lantzen, Yoga, Pilates, Zumba, Aerobik, Korru jantzak, Umentzako euskal jantzak, Sukaldaritzea, Ingelesa, Euskera, Berbalagun, Euskeraz olgetan eta Eskulanak.

Lemoan izen emotea hileon

Lemoan Autodefensa Feminista tailerra, Eskolako Jantokietako Begirale Ikastaroa, Euslidersak tailerrak (gurasoentzako), Sukaldaritzea, Joskintzea eta Pachwork, Euskera, Eskulanak eta Informatika ikastaroak egiteko, izena emoteko epea hile honen lehenengo hamabostaldian zabalduen da.

Ikasturte honetako lehenengo hiru hilabete honetan, argazkigintza ikastaroa be egongo da zementian, baina horretan matrikuletako epea urri bigarren izango da.

Arratiako AEK

- Matrikula zabalik
- Maila guztiak
- Ordutegi zabalak
- Azterketa ofizialak (1, 2, 3, eta 4)
- Arratiako udal guztiek diruz lagunduta

Agirre lehendakaria 4, Igorre

94 631 56 57 arratia@aek.org

www.aek.eus

aek
euskara praktikoa

30 urtean
50.000 lagunek
ikasi dute jadanik
euskara gure 100
euskaltegian

eman
izena

AGENDEA

**URRI LEHENENGOAK 1
AREATZA**

Areatzako Jaiak 2014. I. Argazki Digital Lehiaketan argazkiak aurkeztuteko epea zabalduen da. Hilaren 14ra arte.

Argazkigintza eta tratamendu digitala ikastaroan izena emateko epea hilaren 13ra arte. Udaletxean.

BEDIA

17:00etan, liburutegian 2014/2015 ikasturtea hasten da. (Astelehenetik barikura).

Udalak eraturako ikastaroetako izen emotea, hilaren 19ra arte. Liburutegian.

Sella jeitsierarako urtekerarako izen emotea, hilaren 26ra arte. Urtekera urri bigarrenaren 11n.

Jubiladuen egunerako urtekerarako izen emotea hilaren 19ra arte. Liburutegian. Urtekera Añanako Gatzagatara urri bigarrenaren 14an.

DIMA

Dimako Kalenturak Ipuin Erotiko Lehiaketan lanak aurkezteko hilaren 22ra arte.

LEMOA

Hilaren 12ra arte, Autodefensa Feminista tailerlean izena emateko epea. Udaletxean. Tailerra hilaren 27an izango da.

Hile osoan eusluderrak tailerlean eta Euskera eskolatan izena emateko epea. Udaleko Euskera Zerbitzuan.

**URRI LEHENENGOAK 2
DIMA**

12:30ean, mezea Oban. 18:30ean, sormen arrastia eta txokolatea.

LEMOA

12:30ean, mezea San Antolinen. Ondoren barauskarria. 14:00etan, Baba Lehiaketako lapikoen aurkezpena. 17:00etan erromeria Jokaldi taldeagaz.

ZEBERIO

12:00etan, mezea. Ondoren, barauskarria herriko plazan zeberioztar edadetuentzat. 13:00etatik 15:00etara, poteoa trikitixegaz. Musikari gazteak. 15:00etan,

jubiladuak antolatutako bazkaria Eskola Zaharrean. Jubiladu guztientzat. Bazkalostean, Mus eta Briska Txapelketa jubiladuentzat. 18:00etan, Pirrib, Porrotx eta Marimotots pailazoan *Bizipoza* ikuskizuna.

**URRI LEHENENGOAK 4
AREATZA**

19:00etan, euskal jantzak praktiketako eta ikasteko saioa. Udaletxeko espilu gelan.

**URRI LEHENENGOAK 5
ARTEA**

Arteko Andra Mari jaiak. Ikusi egitarau 5. orrialdean.

DIMA

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" errepresaliaduen aldeko kontzentrazioa plazan.

**URRI LEHENENGOAK 6
IGORRE**

Motor Taldearen kontzentrazioa. 11:00etan batu Berezi tabernan. 12:00etan, Arratiatik ibilbidea. 14:00etan, poteoa trikitixegaz. 15:00etan, pamiladea Berezi tabernan. 17:00etan, jokoak aparkaleku gunean, zezen mekanikoa eta sariak. 20:00etan, pintxo potea La Bodeguilla tabernan. 21:00etan, kontzertuak Kiñu Gaztearen. Zumo Negro eta Koiu.

LEMOA

16:00etan auto slalom-a eta sardina jana Mendietan.

ZEANURI

07:30ean, Zeanuriko Ermiten XXVII. Mendi Martxea. Urtekera herriko frontoitik.

**URRI LEHENENGOAK 7
AREATZA**

Parkeak antolatuta, ibilbide gidatua Bikotxgane-

Unzueta. Gazteluaren historia. Iñigo Garcia Uriberen eskutik.

**URRI LEHENENGOAK 8
ARRATIA**

Enpresak sortzeako ikastaroan izena emateko atzen eguna.

LEMOA

12:30ean, meza nagusia Andra Mari eleizan. 17:00etan, haurrentzako jolas eta tailerak Zazparrak-ek antolatuta Elizondon. 20:00etan, Zeani Antzerki Taldeak *Dantzara* antzezlan aurkeztuko dau Elizondon.

**URRI LEHENENGOAK 9
AREATZA**

"Areatzatik Billarora. Billarotik Areatzara" ikastaroa. Lehenengo saioa, Sorrerea eta Erdi Aroa, Juan Manuel Gonzalez Cembellin. Udaletxeko artean.

BEDIA

17:00etan, ludotekan 2014/2015 ikasturtea hasten da (martitzen eta eguaztenetan).

LEMOA

12ra arte, Eskola jantokietako begirale ikastaroan izena emateko epea. Udaleko Gazteria Zerbitzuan.

Hilaren 19ra arte, Sukaldaritzaren teknika bariak ikastaroan; Joskintza eta Pachwork ikastaroan eta Eskulan ikastaroan izena emateko epea. Udaleko Kultura Zerbitzuan.

Informatika ikastaroan izen emotea. Martitzenetan 09:00etatik 11:30era arte eta 17:30etik 19:00etara, eguaztenetan 17:30etik 20:30era eta eguenetan 09:00etatik 10:30era, informatika gelan.

**URRI LEHENENGOAK 10
AREATZA**

"Areatzatik Billarora. Billarotik Areatzara" ikastaroa. Bigarren saioa: Aro Modemoa. Jesus Muñiz Petralanda.

19:00etan, I. AKKB Argazki Lehiaketako sari banaketeta eta parte hartzaileen argazkien erakusketa. Ondoren, III. Arratia Raidaren aurkezpena Udal Areatoan.

**URRI LEHENENGOAK 11
AREATZA**

"Areatzatik Billarora. Billarotik Areatzara" ikastaroa.

Hirugarren saioa: Aro garaikidea. Amaia Apraiz eta Ainara Martinez.

19:00etan, Julen Urdaibairen berbaldia, "Mendiko lasterketak mundutik zehar: Antartika, Islandia, desertua, eta oihana". Udal Areatoan.

19:00etan, euskal jantzak praktiketako eta ikasteko saioa. Udaletxeko espilu gelan.

ZEBERIO

09:00etan Gure Indarra Jubiladuen alkarteak Pozalaguako kobetara txangoa. Ermitabarrin.

**URRI LEHENENGOAK 12
AREATZA**

19:00etan, Iñigo Gabiriaren berbaldia, "Mendiak oinen azpian: parapentea eta ni". Udal Areatoan.

BEDIA

"Euskara eta euskaldunak munduan" Postal Lehiaketan parte hartzeako epea amaituten da.

**URRI LEHENENGOAK 13
AREATZA**

08:00etan, III. Areatzako Mendi Martxea. Herriko plazaatik abiatuta.

IGORRE

AME Eguna. 11:00etan, puzgarriak. 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 19:30era, Txu-bu tren. 17:00etatik 19:00etara, umeentzako tailerak. 19:00etan, kontzertua. Xalbor. 20:00etan, pintxoak eta barbakoa.

LEMOA

13:00etan, poteo musikatu Arratiako Musika Eskolearen eskutik, Herradura tabernatik hasita. 15:00etan, bertso bazkaria. Bertsolariak: Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus. Gai jartzailea: Igor Menika. 18:30ean, Zaparrada Batukada Taldeagaz poteoa Elizondotik.

UBIDE

09:30ean, Ubideko VI. Mendi Bizikleta Martxea.

ZEBERIO

Austari Mendi Taldearen urtekera astegoiaren pasa. Hecho-ra, Aspe (2.640 m.) eta Bisaurin (2.670 m.).

**URRI LEHENENGOAK 14
AREATZA**

12:00etan, Areatzako Jaiak 2014. I. Argazki Digital Lehiaketan argazkiak aurkeztuteko epea amaituten da.



2008an taularatutako antzezlanaren irudia. Argazkia: Jon Urutxurtu.

Dantzara Elizondon

Zeani Antzerki Taldeak, Patxi Bilbaoren *Dantzara* lana antzeztuko dau Elizondon hilaren 8an, arrastiko 20:00etan. Komedia hau Zeanuriko an-dramarietan estreinau eben.

Zeanuriko taldeak urtean-urtean antzezlan bat aurkezten dau. Hogeta hamaika urte dira horretan dabilela eta, beraz, 31 antzezlan aurkeztu ditu. Atzenengo 16 urteotan, Patxi Bilbao antzerkigile bermeoztarragaz egiten dabela behar eta honen lanak antzeztu dituela azaldu deutso BEGITURI Bibiñe Pujana aktoreak.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**AUTOA SALGAI**

Daewoo Tacuma 5 atedun autoa salgai, 10 urte. 104.000 Km. Interesdunak 94 631 79 06 telefonora deitu (Iñigo).

**HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA
SALGAI**

Lur Hiztegi Entziklopedikoko 10 tomo salgai, egoera onean, barriak legez. Interesdunak idatzi mezu bat e-mail honetara: l_jaztana@hotmail.com.

UMEENTZAT AULKIA SALGAI

Bugaboo markako umeen sillea eta maxicosia saltzean dodaz neguko eta udako fundeagaz. Interesautak zagozenak 615 799 356 telefonora deitu (Laura).

VENDING MAKINEA SALGAI

4 urte dituan vending makinea salgai. 279 produktu sartzeako kapazidatea dauka. Interesatuak 645 725 252 edo 606 771 708 telefonora deitu.

EROSI**TRIKITIXEA EROSIKO NEUKE**

Trikitixa esku soinu erosiko neuke. 653

716 691 (Jon Andoni) telefonora deitu.

DANERIK**TRASTELEKU BILA**

Trasteleku bila nabil. Merkea, 30 euro inguru. Interesdunak deitu 656 742 768 (Bego) telefonora.

PISUA ALOKATZEN DA

Pisua alokairuan Lemoan. Logela bi, komun bi, sala handia, sukalde, balkoia eta garajea. Etxebizitza barria, zonalde onean kokatua. 656 771 662.

LANGILE BILA

Asteburu eguerdian Dimako jatebte baten lan egiteko prest dagoan persona baten bila nabil. Deitu 616 440 185.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1 Lemoako Udalak emondako bi sarrera Amets Arzallus eta Maialen Lujanbioren bertso bazkarirako.

Igor Estankona (Artea)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera film bat ikusteko.

Iñaki Egileor (Igorre)
Nahia Aurrekoetxea (Lemoa)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan sartuko zara.

BEGITUK 12


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Fin. Arsenikoa. 2.- Juntagailua. Modua. 3.- Birritan, korotza. Trebe. 4.- Haragia. Oxigenoa. 5.- Sendatu. 6.- Bokala. Luki. 7.- Bardinketa. India. 8.- Sola pasetako lanabes. Andrazkoen izena. 9.- Berogeta hamaika erromatar. Deus.

GOITIK BEHERA

1.- Ahul. Umil. 2.- Apropos. Gaixo. 3.- Helioa. Esakune. 4.- Bigarren bokala. Eroso. Bokala. 5.- Mozte. Ezetza. 6.- Zeregin, egiteko. Zeanuriko auzunea. 7.- Tripandi. Txispa.



Topau zazpi euskal abeslariren abizenak.



**A
K
I
M
I
K
O**

Aitziber



Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana

Lehendakari Agirre 23, behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

begitu
arratia ubide zeberio

publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea

Zornotza Tlfnoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurritza egindako armairuak
Avda. Los Chopos, 33 (Nagarri) Tel.: 94 631 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Ratzenak: A1, A, B7E, B
Lehendakari Agirre 34
Tlfnoa: 94 631 71 52
48140 IGORRE (Bizkaia)
garante@euskalnet.net

AKETEGIA
GAV 5 LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTUTAN
ONDARUN HUGAZTINEN
ASIGURUTAN
Salme Arria, 3 Tlfnoa: 94 673 71 41 - Faxa: 94 673 71 41 - 48140 IGORRE

BIXER
TABERNA

Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

axular
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES
Iturriotz barrera 8 - 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

LAN PUBLIKOAK
INDUSKETAK
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskolaraz zain erdaz
Garbe, 10 - 48140 Igore (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: unidas@euskalnet.net

JON BARRENETXEA

"Orain Maritxu Kajoi eguna, ez da izango trajea jantziko dodan urteko egun bakarra"

Urri lehenengoa hasteagaz batera ikasturteari be hasikerea emoten deusie askok. Karrerako atzenengo urtea litzateke aurtengoa Jon Barrenetxearentzat, baina atzen urte horrek etxon egin beharko dau. Autobusa barik hegazkina hartuko dau Lemoakoak laster. Gazte honek ez dauka mareorako pastilarik hartuko dauan itxura handirik. Hegazkineko laguntzaile izateko kurso baterako baiezkoa emon, eta aukeratua izan da. Uda osoa daroa ikasketokaz, baina gogotsu igarri dau BEGITUK, hartutako erabagiagaz seguru. Kontuz, baleiteke laster oporretan joan eta biajea lemoaztar honegaz egitea.

Irati Urien

Izatez kazetaritza ikaslea zara...

Bai. Batxilerra amaitu eta nire asmoa egia esan SHEE-IVEF egitea zan, kirola asko gustetan jatalako. Baina selektibidadeko noteagaz batera batz bestekoak ez eustan emon bertara sartzeako, eta hurrengo aukerea kazetaritza zan. Hasikera baten ez zan nire debozinoa kazetaritza ikastea baina urteak aurrera joan ahala gustura sentidu naz eta bertan segiduten dot.

Zelan hasi zan hegazkinetako laguntzaile izateko kontu hau?

Lehengusinari Sustapen Ministeriotik (Ministerio de Fomento)

deitu eutsien, maiatzetik urrietara bitartean hegazkineko laguntzaile izateko kurso bat egongo zala eta ia interesauta egoan galdetzeko. Ezetz erantzun eban. Ia gurako leuden nonor ezagututen eban galdetu eutsien orduan, eta honek nire zenbakia emon.

Gatz egin jatzun baiezkora erabagia hartutea?

Pentsauta euki neban kurso hori egitea, baina behin karrera amaituta. Deitu eustan galdetu ezin neban aukerea zala esaten eustan, hogeik ikasleko kurso mugatua zala. Handik bi egunetara baietza emon eta alkarrizketea egin behar izan neban.

Zelan joan zan lehenengo kontaktu hori?

Alkarrizketa personal bat egin

eusten. Hiru ordu laurdeneko kontua izan zan eta ondo urten jatan, sano gustura urten nintzan handik. Atera orduko jakin neban gauzak ondo joan zirala. Presino apur bat be euki neban egia esan; izan be, amagaz batera egin neban alkarrizketea eta amok badakizu zelangoak diran, kar, kar, kar. Egun berean barruan nengoala esan eusten.

Momentu honetan kursoagaz segiduten dozu. Zelan doa?

Kursoa maiatzean hasi neban, eta urri lehenengoan amaituko dot. Ondino ez deuskue azterketa eguna zehaztu baina hile amaieran izango ei da. Klaseak astelehenetik barikura daukadaz, 14:30etik 20:30era. Lehenengo ordu eta erdian inglesa emoten dogu, garrantzi handia emoten deusie hizkuntzeari eta. Beste lau ordu eta erdiak ikasgai desbardinetan bananduten doguz: abiazinoaren oinarriko ezagutzak, giza-faktoreak, aire-nabigazinoako medikuntza eta lehen sorospinak, araudia, operazio normal eta larrialdizkoa, segurtasuneko eta biziraupenezkoa...

Ze zentrotan zabiz?

Bilbon dagoan CESA zentroan, Centro de Estudios Superiores Aeronauticos esan gura dau izenak.

Behin kursoa aterata, ze konpainiagaz egingo zeunke edo gustauko jatzun behar egitea?

CESAK konpainien % 95agaz behar egiteko probabilidadea dauka. Vueling, Air Europa... gaur egunean izen handiena daukienak gurako neuke. Gero, Fly Emirates airelineagaz behar egitea gustauko litxakit, baina hori larregi litzateke, perfekzioa topetan dabe eta.

Hegazkinean ibilitakoa zara?

Bai. Gurasoai biajetea asko gustetan jakie eta ni txikitatik abioian ibilitakoa naz. Nahikotxo biaje egin dodaz munduan zehar, baina batzuk aitatu behar izatekotan, Punta Cana, Miami, Mexiko,

Tunez, Kanariar Uharteak... aitatuko neukez. Asko gustetan jataz biajeak, leku barriak ezagututea. Pentsetan dot garrantzitsua dala beste kultura batzuen barri eukitea, kultura barri baten sartuteak gauza asko erakutsi ahal deuskulako eguneroko bizimodurako.

Kazetaritzako karrera denporaldi baterako "itxi" egin dozu. Zer dinotsue ingurukoak?

Aukera hau ez dodala pasetan itxi behar pentsetan dot, eta horregaitik garrantzi gehiago emon neutsan honeri karrerari baino. Familiagaz berba egin ostean erabagi genduan karrera zati baterako aparkauta ixtea. Jakinda

gainera gitxi falta jatala karrera amaituteko argi daukat berrartuko dodala, hori bai, ez dakit noz.

Askota dira hegazkinari bildurra eukiten deusienak. Zuk?

Atzenaldian pasau diran istripuakaz normala da txarto pentsetea, baina egia esan nik ez deusat bildurrik. Txikitatik gura izan dodan gauza bat da, ez deusat buruari bueltarik emoten. Horretarako apur bat burugogorra naz.

Trajea jantzeko prest?

Bai. Orain Maritxu Kajoi eguna ez da izango trajea jantziko dodan urteko egun bakarra. Hasikera arraro egingo jata trajeagaz ibiltea, baina ohituko naz.





ALKIZABAL

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxes. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkaia)

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net
Zabalik 07:00 - 19:00












• Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.

• Garraio zerbitzua.